

Nazio-identitatea eta erreferentzialtasuna EiTbN: *Gaur Egun* albistegiaren kasua

Jose Mari Pastor
EHU/UPVko irakaslea

Euskal Telebistako informazio-programetan islatzen diren nazio-identitatearen erreferentziak aztertzen dira lan honetan. Ikerketa burutzeko, Juan Jose Ibarretxe jeltzalea eta Patxi Lopez sozialista EAeko lehendakariak izan ziren garaietako *Gaur Egun* albistegiak hartu dira oinarri. Euskal Herriaren kontzeptua, lurraldetasunari buruzko ahozko aipamena eta haren iruditeria infografia eta mapetan ikertu dira, hedabide publikoak bi agintaldi horietan aireratu dituen albistegien ezaugarriak eta haien arteko diferentziak nabarmentze aldera. Lan honen ondorio nagusia hau da: Lopez lehendakariaren agintaldian Euskal Telebistak ekoiztutako albistegietako berrietan area-gotu egiten da nazio-identitate espainiarraren erreferentziak agertzeko joera.

GAKO-HITZAK: Euskal Telebista · Albistegia · Nazio-erreferentzialtasuna.

National identity and references in EITB: 'Gaur Egun' news program's case

This work analyzes national identity and references in EITB's news programs. The research is based on the review of the program *Gaur Egun* broadcasted at the time the nationalist Juan Jose Ibarretxe and the socialist Patxi Lopez were presidents of the government of the Basque Autonomous Community. The concept of the Basque Country, the oral references to territoriality and its imaginary in graphics and maps are studied in order to highlight the characteristics and differences in public media news in both mandates. The main conclusion of this work is the following one: the news produced on Basque television during president Lopez's term reinforce Spanish national identity's references in the programs..

KEY WORDS: Basque Television · News · National identity.

Jasotze-data: 2013-08-28. *Onartze-data:* 2014-02-13.

1. Telebista, identitate-borrokaren eremua

Euskal Telebista Euskal Herriaren naziotasun-erreferentziari buruzko eztabaidaren erdian izan da sortzez geroztik, 1983. urtetik. Iritzi kontrajarriak izan dira Euskal Telebistak identitate-borroka horren inguruan izan duen jarrerari buruz. Batetik, laudorio ugari egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoak sortutako telebistari, batez ere euskararen normalizazioaren arloan. Bestetik, ez dira gutxi zeregin horretan ahalegin emankorragoak espero zituztenak.

Euskararen normalizazio-prozesuan laguntzea izan zen euskarazko telebista publikoaren helburu nagusietako bat. EITB legeko bigarren kapituluaren hirugarren artikuluko zortzigarren puntuak hedabideetan euskararen erabilera sustatu eta bultzatu beharra aipatzen zuen: «Kulturaren eta euskeraren suztapena, euskera erabiltzearen xedetarako, oinarriko egitarautarauak ezarriz, orotariko eskeintza mailan Elkarte Autonomiadunean, euskeraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontutan izanik».

Euskara sustatzea ez ezik, Euskal Herriak nolabaiteko askapen mediatikoa lortzea ere izan zen Euskal Telebistaren xedea. Informazio-eremu espainiarraren katea haustea. Richard Maxwellek 1995ean *The Spectacle of Democracy. Spanish Television, Nationalism and Political Transition* liburuan adierazi zuenez, ETB sortzeko EAEk ez zuen Espainia «inperial» aldera begiratu, kanpora baizik: «Duela hamar urte, ETB sortu zuten unean, euskal politikari askok estatu arrotz moduan ikusi zuten Espainia, agintari inperial gisa. Laguntza eske estatuarengana jo beharrean, euskaldunek beste nonbaitera begiratu zuten aholkua eskatu eta esperientziak biltzeko, horrela euren telebista sistema berria sortzeko» (Maxwell, 1995: 110). Maxwellen arabera, euskaldun, galiziar eta katalanentzat berebiziko garrantzia zuen hedabide propioak izateko eskubideaz baliatzeak, euren kultura eta «nazionalitatea» suspertzeko: «Euskaldun, galiziar eta katalanentzat erronka handia zen: euren nazionalitatea berpiztea eta bizirik iraunaraztea. Haien politika kulturalak estatu nazionalaren kultura zentralistaren aurka joaten ziren» (Maxwell 1995: 153).

Lana ez zen erraza izan, baina. Pere-Oriol Costak agertzen duenez, Espainiako telebistak diktaduraren garaiko egiturei eta funtzionamenduari eutsi zien trantsizioko lehen urteetan:

Diktaduratik demokraziarako trantsizio politikoa aztertzeak ondo baino hobeto frogatzen du zentroko gobernuek nahita atzeratu zutela irrati-telebistako erakundeetan egiturak aldatzea. Horrela, prozesu erreformista sostengatu eta kontrolatzea lortu zuten, baita ezelango kontrolik gabe zegoen telebistaren pertsuasio gaitasuna euren helburuak gauzatzeko erabiltzea ere (1986: 320-321).

Izan ere, gutxiengoen hizkuntza eta kultura bultzatzeko baliabidea izan daiteke telebista. Horrek ez du errealitatea ezkutatu behar, baina: telebista, batez ere, tresna ezin hobea da estatu bat atzean duen kultura nagusiak hedatzen segitzeko. Toni Mollák globalizazioa inposatzen ari den eredia salatu du *Llengües globals, llengües locals* liburuan. Hori gauzatzeko, funtsezkoa da hedabideen laguntza: «Egoera hori kolonialismo gisa definitu daiteke, kultura nagusiak lurralde berrietara hedatzen duelako bere ideologia. Desberdintasuna, baina, hauxe da: presentzia

ez da gehiago gobernuarena, administratiboa edo militarra; birtual bihurtu da, batez ere ikus-entzunezko hedabideei esker» (Santamaria, 2002: 91).

ETB euskal etxeetan sartu zenean, euskarak jauzi izugarria egin zuen ikus-entzunezkoen arloan, komunikazio-garai modernoen ikonoa den eremuan, hain zuzen. Hori hala izanik ere, Joan Mari Torrealdai argi utzi zuen, telebista sortu eta hamar urtera, EITB legean islatutako jatorrizko asmo hori lausotzen hasia zela. Haren ustez, euskarari eskainitako eremua, horren jorraketa eta berezitasunak ez ziren nahikoa euskal hizkuntza eta euskal hiztunak normaltasun-eremu horretara tinko eramateko. ETBri buruzko hasierako ilusioak jaisten hasiak ziren ordurako: «Gaurko telebistak, onerako edo txarrerako, distantzia dexente hartu du jatorrizko izpiritu eta gogo hartatik. Horregatik diot, ez dela hau guk amestu genuen telebista. Gu geunden oker. Agian inozo eta optimistegi ginen» (Torrealdai, 1993: 155).

Erakunde publikoaren jarrera hori kritikatu duten adituen ustez, ETB1en, euskara hutsezko katean, hedatutako programazio motak itxi egin du euskarak normalizaziorako berez beharko lukeen esparrua. Bizitzaren arlo guztiak bere egin eta normaltasunez hedatu beharrean, katea emanagoa izan da eremu jakin batzuetara. Euskarazko kateko programazioa esparru batzuetara mugatzeak ez dio behar beste lagundu ikus-entzunezkoen arloan euskara eta modernitatea normaltasun osoz txertatzeari. Torrealdairen ustez, ETBko euskarazko kanalaren ohiko emanaldiak ez dira nahikoa euskara bazterretik ateratzeko:

Ikusi beharra dago edukia, programazioa. Oso erraz gerta daiteke ETB1 bazterfenomeno, fenomeno marginala. Arrisku horren mamuak ikusten hasia dago gaur bertan bat baino gehiago. Haur eta gazteei zuzenduriko programazioak eta kirolak dute protagonismorik nabarmenena ETB-1ean. Agian ondo dago, oso ondo. Agian irtenbide bakarra da. Baina, —hau da nere galdera— ez al dago haur ez den eta nahitaz kirolzale ere ez den lagun eta kolektibo euskaldunik, agian kulturalki kezka baduenik eta informazioan sakontzea eta gizarte-arazoez eztabaidatzea eta, interesatzen zaionik? (Torrealdai, 1993: 156-157).

Hortaz, ETBk euskara diglosia-egoeratik ateratzen laguntzeko jorratutako bidea izan da eztabaidetako bat. Bigarren auzia, lehenari estu lotua, Euskal Telebistak proiektatutako nazio-irudiari buruzkoa dugu. Arlo horretan nabariagoak izan dira ereduaren arteko diferentziak eta biziagoak eztabaidak. Batetik, euskal eraikuntza nazionalaren alde behar beste lan egin ez duela, eta arlo horretan ausartago eta argiago jokatu beharko lukeela uste dutenen aldetik; bestetik, bada ETBren jarduerak Euskal Herrian espainiar iruditeriari eta identitateari kalte egin diezaiekeela uste duenik.

Azken horiek aukera ezin hobea ikusi zuten Patxi Lopez lehendakartzara iritsi zenean. Kosmopolitismoaren aldarrikapena egiten zutenek, ETBk identitate-arazoa ahaztu, ikuspegi nazionalistatik aldendu eta gizarte osoaren zerbitzuko izan behar zuela esaten zutenek, bestelako bidetik jo zuten sozialisten burua Ajuria Enean eseri eta telebistako goiko arduradunak aldatu zituztenean.

Arazo identitarioa: PSOEk ez zuen ukitzeko asmorik. Bada, ikurriñaren lekuan Espainiako bandera jarri du. Espainiako Erregearen mezua ETBn eman du. Eguraldiaren mapa modu absurdu eta patetiko batez eraldatu du. EITBk kutsu nazionalista zeukalako, kutsu kosmopolita eman omen diote orain. Bada, ez. Eman

dioten ukitua ez da batere kosmopolita, espainola baizik. Ertzaintzaren ezkutua ez zuela gustukoa eta aldatu zuen. Identitate zeinuak aldatu nahian aritu da (Iturriotz, 2010: 5).

Euskal Herriaren lurralde-nortasunari buruz nagusi diren bi kontzeptuak —ikuspegi abertzalea edo euskal nazionalista, eta ikuspegi konstituzionalista edo espainolista—. aztertu dira lan honetan. Ikuspegi abertzalea halaxe definituko genuke: Euskal Herria euskara egun mintzatua den zazpi lurraldeen batasun politikoaren aldeko sentimendua, estatu espainiarrak eta estatu frantsesak ezarritako muga administratiboak gainditzeko egitasmoa azaltzen duena. Ikuspegi espainolistak, aldiz, Espainiako Konstituzioaren eredu autonomikoan onartu eta garatutako kontzeptua du abiapuntu. Horren arabera, Euskal Herria Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintziek osatzen dute: Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak eta, autonomia badu ere, subiranotasun espainiarraren mende dago eta egon behar du.

ETBko albistegietan biak ala biak nola uztartu diren ikusteko gakoak lurraldetasunaren aipamenari erreparatu zaio, nazio-erreferentzialtasuna zein den atzemateko. Aipamenaren azterketak ahozkoaren eremua ez ezik, idatzizkoa zein irudizkoa ere hartu ditu kontuan —Euskal Herria agertu duten infografiak eta mapak, esaterako—.

Euskal Telebistaren informazio-jardueraren kudeaketaren garrantzia argi geratzen da hedabideak dituen erabakitze-guneak aukeratu eta osatzeko moduan. EITBko zuzendari nagusia izateko Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izateko baino boto gehiago behar dira: hautagaiak ezinbestekoa du Eusko Legebiltzarrean gehiengo osoa lortzea, bestela ezin du postua hartu. Aukeratua izan eta gero, zuzendariak zuzendaritza-taldeko kideak hautatzen ditu. Logikoa denez, pertsona horiek konfiantzazkoak izaten dira. Administrazio-kontseilua Legebiltzarrean dauden alderdi politikoek aukeratutako lagunek eta zenbait gizarte-eragileren ordezkariak osatzen dute, EITBko zuzendari nagusiarekin batera. Lehenak alderdi bakoitzaren ordezkariak parlamentarioaren arabera hautatzen dira, era proportzionalen: zenbat eta legebiltzarkide gehiago izan, orduan eta ordezkari gehiago aukeratu ahal izango ditu alderdi batek. Horrekin batera, bigarren multzo bat dago, lau gizarte-eragile edo talderen ordezkari banarekin.

ETBko albistegietako edukia bertako zuzendaritzaren inguruan osatutako konfiantzazko taldeak erabakitzen du. Zuzendari nagusiak albistegietako zuzendariak aukeratzen ditu, eta horren ondoren albistegietako arduradunak. Arduradun horien menpe editoreak eta sail-arduradunak ditugu. Orain figura berria dago, lehen ez zegoena: EITBko medio guztien arteko albistegietako edukien koordinatzailea. Lurraldetasunaren eta erreferentzia geografikoen kontzeptuen eta tratamenduaren oinarriak goiko erabakitze-guneetan dauden lagunek zehazten dituzte.

Lurraldetasunaren arloan beste kontu bat ere badago. Euskal Herriaren kontzeptua bera nola islatzen den eguneroko errealitate informatiboari heltzeko sortzen diren azpiegituretan. Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusia aukeratu zutenean —1999an izan zen— EAJren eta Euskal Herritarrok taldeen botoekin lurralde-korrespontsaliak indartzeko akordio estrategikoa garatzeko borondatea azaldu zen. Azkenean hori ez da gertatu, baina. Krisi ekonomikoa errealitate

gordina bada ere, argi dago EAJren politika informatiboak Euskal Autonomia Erkidegoa lehenesten duela: Nafarroak ez du horrenbesteko garrantzirik; Iparraldearen isla informatiboa are txikiagoa da EITBn. Ipar Euskal Herriaren presentzia ia testimoniala da EAJren eguneroko praxi politikoan. Hori dela-eta, lurralde horietako informazioari leku eskasa uzten zaio. Lekua are eskasagoa izango da garai ekonomiko latzean, baliabideei ezarritako murrizketak esparru horietan agertzen baitira.

2. Metodologia

ETBko albistegiek hedatutako nazio-identitate eta erreferentzialtasuna aztertzeko 2008. urteko eta 2010. urteko *Gaur Egun* programaren eduki-analisia egin da. Horretarako albistegi bakoitzaren edukiak aztertu dira. Ikerketan kontuan hartu den epea urtebetekoa izan da kasu bietan, urtarriletik abendu arteko tarte bakoitzean, hain zuzen ere. 2008ko eta 2010eko hamabi hilabete horietan albistegian azaldu diren albiste guztien edukia hartu da kontuan, albistegian barrena azaldu diren informazio-unitateei erreparatuta.

Lanaren hipotesi nagusia hauxe izan da:

Patxi Lopez EAEko lehendakariaren agintaldian ETBko *Gaur Egun* albistegiak euskal politikari eta Euskal Herriaren iruditeriari buruz ematen duen informazioak helburu bat du: Euskal Herria Espainiako eredu konstituzionalean hobeto txertatzen laguntzea, eremu informatibo horren kudeaketa baliatuz.

Hipotesia frogatzeko lan-galdera hauek proposatu dira:

- a) Zeintzuk dira 2008. urteko eta 2010. urteko albistegien sail erreferente nagusiak?
- b) Euskal Herriko informazio politikoak, oro har, garrantzi berdina du batean zein bestean? Diferentziazirik badago, zein elementuk islatzen du desberdintasun hori?
- c) Euskal Herriko eragile politikoek, haien jarduera, jarrera eta iritziek zer nolako lekua dute *Gaur Egun* albistegian?
- d) Alderdi edo kolektibo politiko abertzaleen iritzia berdin ordezkaturik daude bi urteetan?
- e) Nola irudikatzen da Euskal Herria albistegietako ahozko edukietan zein errepresentazio grafikoetan?
- f) Berdinak dira aztertutako bi urteetako albistegien egiturak? Nola eragiten dio horrek eduki politikoaren banaketari albistegian?
- g) Euskal Herriko politikari lotutako informazio-unitate motak berdinak dira urte batean eta bestean? Informazio politikoa aurkezteko garaian item jakin bat nagusitzen da 2008an eta beste bat 2010ean ala berdin antzean gertatzen da bi kasuetan?
- h) Espainiako eta Frantziako albisteek garrantzi berdina dute aztertutako albistegietan?

2.1. Ikerlanaren unibertsoa

2008ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arteko eta 2010eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arteko *Gaur Egun* gaueko albistegietako informazio-item guztiek osatzen dute ikerlanaren unibertsoa. 2008. urtean 366 *Gaur Egun* izan ziren gaueko edizioan —bisurtea izan zen— eta 2010ean, 365. Unibertso horren lagina aukeratzeko bi astekako aste konposatuaren ikerketa-ereduari segitu dio egileak. Guztira 1.262 informazio-unitate (IU) aztertu dira: 2008. urteko albistegietatik 552 IU hartu dira; 2010eko albistegietatik, 710.

2.2. Laginaren aukeraketa

Esan bezala, *Gaur Egun* albistegien lagina egiteko bi astekako aste konposatuaren metodologia erabili da. Horrela, azterketa kuantitatiboan albistegien unibertsoa eta haren edukiak orokortasunean modu fidagarri batean ordezkari ditzakeen lagina osatu da.

Ikerkuntza zientifikoan, maiz, alde zehatz zehazki definitutako unibertsoetik, prozedura zehatz baten bidez, unibertsoaren ordezkagarria den lagina hautatzen da. *Ordezkarri* hitza oso garrantzitsua da hemen, zeren eta laginaren balioa horretan baitatza, unibertsoaren ordezkari lana egitean (Zabaleta, 1997: 154).

2.3. Ikerketaren fidagarritasuna

Lan hau egiteko sortu den neurketa-sistemaren fidagarritasuna frogatzeko ikerketa pilotu bat egin da. Metodologia fidagarria ez ezik, baliagarria ere badela frogatzea da helburua. «Edozein eskalak eta indizek, edozein neurketa-prozedurak, bi kualitate hauek izan behar ditu: fidagarritasuna eta baliagarritasuna. Horregatik, eskala edo indize berri bat egiten denean, estudio pilotu batean frogatu behar da beraren egokitasuna» (Zabaleta, 1997: 119).

Estudio pilotua egiteko, hiru lagun aukeratu dira. Kodelari bakoitzari ikerlanaren oinarriak, helburuak eta metodologia azaldu zaizkio. Datu horiek eskuan, albistegi bat ikusteko aukera izan dute prestakuntza-ariketa moduan. Kodelari bakoitzak 129 kodifikazio-erabaki hartu ditu. Orotara, 387 kodifikazio-erabaki egin dituzte ikerketa-proban. Gero, kodelariek lortutako datuak konparatu dira euren arteko adostasuna neurtzeko asmoz, hau da, elkarrekin baina nor bere aldetik egindako probetan, hiru kodelariak bat datozen ala ez frogatzea. Horren ondoren, Holsti-ren fidagarritasun-formula aplikatu da. Kodelarien arteko adostasuna neurtzeko ikerketa honetan erabilitako Holsti-ren fidagarritasun-formula proposatzen da:

Fidagarritasuna: $\frac{2M}{N1+N2}$

Non:

M = Bi kodelariak ados daudeneko kodifikazio-erabakien kopurua.

N1 = Lehen kodelariak (K1) egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

N2 = Bigarren kodelariak (K2) egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.
(Zabaleta, 1997: 226).

Goiko formulari segituko dio proba honek, baina kasu honetan hiru kodelariekin egindako ikerketa pilotuaren emaitzak izan dira lanaren oinarria:

$$\text{Fidagarritasuna : } \frac{3 M}{N1+N2+N3}$$

Non:

M = Hiru kodelariak ados daudeneko kodifikazio-erabakien kopurua.

N1 = Lehen kodelariak (K1) egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

N2 = Bigarren kodelariak (K2) egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

N3 = Hirugarren kodelariak (K3) egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

Esan bezala, kodelari bakoitzak 129 kodifikazio-erabaki hartu ditu. Orotara, 387 kodifikazio-erabaki landu dituzte ikerketa-proba honetan. Hirurak 125 kodifikazio-erabakitan etorri dira bat. Beraz, hauxe izan da azkeneko emaitza:

$$\begin{aligned} \text{Fidagarritasuna : } & \frac{3 M}{N1+N2+N3} \\ & \frac{3 \times 125}{129+129+129} \\ & \frac{375}{387} = 0,9689 = \% 96,89 \end{aligned}$$

Proba egin duten kodelarien emaitzen arteko kointzidentzia % 90etik gorakoa da, % 96,89koa, hain zuzen. Fidagarritasuna, beraz, begi-bistakoa da. «Metodologoek, kodelarien artean gutxienez % 90eko fidagarritasun-portzentajea lortzea kontsideratzen dute egokia» (Zabaleta, 1997: 226).

Emaitzak


Euskal Telebistak *Gaur Egun* albistegian hedatutako nazio- eta lurraldetasun-erreferentzialtasuna aztertzeke bi kategoriari erreparatu zaie: batetik, lurraldetasuna albistegietako ahozko aipamenetan; bestetik, Euskal Herriaren irudikapena albistegietako infografiatan. Aztertutako bi urteetako laginetan honako emaitzak izan dira:

3.1. Lurraldetasuna albistegietako ahozko aipamenetan 2008an

Euskal lurraldetasunari buruzko aipamenak 2008ko albistegien laginean 55 dira guztira. Euskal Herriak horietako 34 ditu, hau da, % 62 guztira. Bigarren postuan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa batzen dituen lurraldea dago, Espainiako banaketa

politiko administratiboan Euskal Autonomia Erkidegoa izendatutakoa, hiru probintzientzako autonomia-estatutuan Euskadi ere deitua. Era batera edo bestera aipatzen duten aldiak 10 dira guztira (% 18). Hego Euskal Herria edo Hegoaldea zazpi aldiz aipatzen dute (% 13); Ipar Euskal Herria edo Iparraldea, ostera, lau aldiz aipatua da, % 7.

1. grafikoa. Lurraldetasuna albistegietako ahozko aipamenetan (2008)
Guztira




Iturria: egileak landutakoa.

3.2. Euskal Herriaren irudikapena albistegietako infografiatan 2008an

2008ko *Gaur Egun* albistegien laginak, oro har, Euskal Herri osoa irudikatzen du bere infografiatan. Euskal Herriaren irudikapen hori nabari da ikusleari datu ekonomikoak eskaintzen dizkioten albisteetako osagarri infografikoetan, dela mapa, dela taula edo bestelako grafikoetan. Euskal Herria zazpi probintzietako

2. grafikoa. Euskal Herriaren irudikapena albistegietako infografiatan (2008)
Guztira




Iturria: egileak landutakoa.

lurraldean agerrarazten duen iruditeria nagusitzen da, nahiz datuak Espainiak administratutako euskal lurraldeei dagozkien. Euskal Herri osoa bereizketa administratiborik gabe azaltzen du infografietako % 72k. Hego Euskal Herri osoa bereizketa administratiborik gabe agertzen duten infografiak % 14 dira, Hegoalde bereizita dagoen infografiak beste.

Adibide garbiena 2008ko abenduaren 2ko albistegian dago, langabeziari buruzko datuetan. Egun horretako albistegiko mapan Euskal Herri osoko mapa azaltzen da, ondoan Espainiaren edo Frantziaren erreferentzia geografikorik agertu gabe. Mapa hori bost bider azaltzen da. Lehenengo lau aldietan Hegoaldeko lau probintzietako datuak ageri dira banaka, Espainiako Konstituzioak zehaztutako muga administratiboen arrastorik gabe. Aldi bakoitzean probintzia bat nabaritzen da beste sei herrialdeetatik, bakoitzaren garapen ekonomikoa nabarituz. EAeko datuak ez dituzte baturik eskaintzen, hiru probintzietako datuak tartekatuz baizik. Euskal Herri osoko mapa ageri den bosgarren aldia espainiar estatuko langabeziaren datuak emateko unean da. Kasu horretan, Espainiako mapa ikusten da, eta goiko aldean Euskal Herriko mapa txikia, zazpi probintziekin, hor ere mapa orokorretik nabarmenduta, hiru dimentsiotan eta berde ilunagoz margotua.

1. irudia. Langabeziaren datuak 2008ko albistegian.



Iturria: EITB.

Eguraldiaren mapa ere esanguratsua da, oso, hedabide publikoak hedatutako lurralde-erreferentzialtasunaz oartzeko. Mapek garrantzia handia dute herri edo nazio bat irudikatzeko garaian. Jose Inazio Basterretxeak azaltzen duenez, lurralde baten errepresentazio mediatikoa errazago barneratzen du jendeak estatu abstraktuaren ideia baino. Hori dela-eta, mapak funtsezko tresnak izaten dira mezu politiko eta ideologikoak hedatzeko: «Mapak, mundu modernoan, esangura estrategiko garrantzitsua du. Kartografia diziplina aski erabilia izan da —eta bada—, estrategia politikoetan, militarretan, ekonomikoetan eta ideologikoetan.

Beraz, mapa bera mezu politiko eta ideologikoen adierazle aparta da» (Basterretxea, 2000: 194).

Horren adibide garbia dugu 2008ko abuztuaren 19ko emanaldian. Biharamuneko eguraldia iragartzen denean, Euskal Herria ondo nabarmenduta azaltzen zaigu mapan. Kasu honetan, aurreko irudian baino argiago bereizten da: mapa handiagoa da eta Euskal Herriaren barruan ez da banaketa administratiborik azaltzen. Espainia eta Frantzia aldamenean ageri dira, zati bat baino ez: Euskal Herriarekin muga egiten duten lurraldeak dira, kolore leunagoz marraztuta.

2. irudia. Eguraldiaren mapa 2008ko albistegietan.




Iturria: EITB.

3.3. Lurraldetasuna albistegietako ahozko aipamenetan 2010ean

Orotara, euskal lurraldetasunari buruzko 70 ahozko aipamen daude, era batekoak zein bestekoak, 2010eko azterketarako hautatutako albistegietan. Euretako 60 Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi atalekoak dira (% 86). Nabarmentzekoa da 60 aipamen horietatik 50 Euskadi terminoari dagozkiola. Euskal Autonomia Erkidegoa hamar aldiz baizik ez dago ahoz aipatuta 2010. urtean ikertutako albistegi guztien laginean. Bigarren Euskal Herria dago (sei aipamen, % 8) eta azken postuan Ipar Euskal Herria (lau, % 6).

**3. grafikoa. Lurraldetasuna albistegietako ahozko aipamenetan (2008)
Guztira**




Iturria: egileak landutakoa.

3.4. Euskal Herriaren irudikapena albistegietako infografiatan 2010ean

2010. urteko infografiatan ez dago Euskal Herri osorik mapetan. Hego Euskal Herriko datuak lau aldiz agertzen dira infografiatan, baina lau kasu horietan ondo bereizita ikusten dira bai Euskal Autonomia Erkidegoa, bai Nafarroako Foru Erkidegoa. 2010eko apirilaren 19ko albistegian, esaterako, etxebizitzaren prezioek behera egin dutela esaten dute. Infografia berean EAE, Nafarroa eta Espainiako datuak ditugu, ordena horretan, lurralde bakoitza ondo bereizita.

4. grafikoa. Euskal Herriaren irudikapena albistegietako infografiatan (2010)



Iturria: egileak landutakoa.

Lau dira Hegoaldea infografia berean bereizketa administratiboarekin azaltzen den kasuak. Beste kasu batzuetan Hego Euskal Herriko datuak erabat zatituta ematen dira, aurreko kasuetan bezala eta, gainera, infografia sekuentzia desberdinetan dugu. Kasu horietan Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako datuak infografia banatan daude, guztiz bereizirik. 2010eko maiatzaren 4ko kasua oso esanguratsua da. Egun horretan apirilako langabeziaren datuak hedatu ditu albistegiak baina hiru infografiatan. Lehendabizikoa EAeko mapa ageri da eta langabetuen kopurua: 134.300. Bigarrenean Nafarroa dago, mapa eta bertako datuekin: 42.372 langabetu. Hirugarrenean Espainia azaltzen da mapa eta datuekin hura ere. Azken kasu horretan Espainia oso-osorik ageri da, Portugal eta Frantzia gabe. Euskal Herriak ere ez da ageri mapa horretan. Ondoko infografian ondo baino hobeto islatzen da banaketa hori. 2008ko infografian ez bezala, hemen EAeko hiru probintziak ageri dira.

3. irudia. Langabeziaren datuak 2010eko albistegietan.



Iturria: EITB.

2010eko maiatzaren 19ko mapa honetan irudi orokor bat ageri da. Aurkezleak eguraldiaren eboluzioaren berri ematen du. Mapa geografikoan ez da inondik inora ere Euskal Herriak nabaritzen.

Urte horretako eguraldiaren mapan, 2008an ez bezala, erreferentzia estatal espainiarra da nagusi, nahiz Espainiako mugak eta penintsula osoa ez diren ageri. Euskaldunentzat muga historiko, kultural eta linguistikoak direnak —eta politikoak, askoren ustez— desagertze hutsak indartu egiten du estatuaren botere sinbolikoa, berez eraikia izan arren, egunerokoan eraikitzen segitzen duena, etengabe, modu ia ikusezinean. Estatu propioa izan nahi dutenei *nazionalista* deitzen dietenek nazionalismoari eusten diote euren estatu-nazioa indartuz. Horixe gogorarazten digu Michael Billigek *Banal Nationalism* liburuan:

Nazionalismoak maldan behera doazela dioten iritzi korrontea nagusitzen ari da. Nazionalismoa, hala diote behintzat, ez da lehenagoko indar handi hura: globalizazioa da jaun eta jabe. Baina hauxe gogorarazi beharra dago: nazioa oraindik ere ari da erreproduzitzen. Azken sakrifizioak eskatzen ditu oraindik eta, egunero, haren sinboloak eta suposizioak markatuak dira (1995: 8-9).

4. irudia. Eguraldiaren mapa 2010eko albistegietan.



Iturria: EITB.

4. Ondorioak

Euskal lurraldetasuna ardatz duten ahozko aipamenak eta infografiak aztertu eta gero, begi-bistakoa da badela alderik 2008ko eta 2010eko albistegien artean. Azken urte horretako *Gaur Egun* albistegien laginean areagotu egiten da edukiak eta horien tratamendua Espainiako Konstituzioaren eta legezko esparruaren barruko eredu autonomikoan txertatzeko joera. Horrek argi eta garbi frogatzen du metodologiaren atalean egileak azaldutako hipotesia:

Patxi Lopez EAEko lehendakariaren agintaldian ETBko *Gaur Egun* albistegiak euskal politikari eta Euskal Herriaren iruditeriari buruz ematen duen informazioak helburu bat du: Euskal Herria Espainiako eredu konstituzionalean hobeto txertatzen laguntzea eremu informatibo horren kudeaketa baliatuz.

Hipotesi hori iker-galderen bidez gorpuztu da. Kasu honetan, garrantzi berezia hartzen du *Gaur Egun* albistegiek Euskal Herria nola irudikatzen duten ahozko edukietan zein errepresentazio grafikoetan.

Euskal Herria eremu konstituzional espainiarrean lehen baino hobeto eta modu argiagoan kokatzeko saioak lurraldetasunaren kontzeptuari eta berorren aurkezpen


eta garapenari eragiten die bereziki. 2010eko laginean —Euskadiko Alderdi Sozialistak Eusko Jaurlaritzan eta haren buru Patxi Lopezek lehendakari-tzan agintzen duten garaietan— Euskal Herria zatiturik aurkezten zaie, normalean, ikusleei. Albistegietako informazio politikoak Espainiak zein Frantziak ezarritako errealitate politiko-administratiboari segitzen dio. 2008ko albistegien laginean joera hori egon badago. Orduan ere Espainiako eredu konstituzionalaren barruan kokatzen da, oro har, ETBko albistegiek euskal politikari buruz hedatutako informazioa, baina haren garrantzia ez da hain handia.

Alta, 2010ean ez bezala, 2008an agerian geratzen dira legezko errealitate hori nolabait gainditzeko nahia eta saioa. Ez beti, baina bai sarri. Euskal Herria ahal den neurrian baturik azaltzea ahalbidetzeko ahaleginak egiten dira ETBko *Gaur Egun* gaueko albistegietan Juan Jose Ibarretxe, EAJko politikaria, Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria zen agintaldi politikoan. Tratamendu informatibo hori Euskal Herria osotasunean edo zatika aurkezteko eta izendatzeko moduetan sumatzen da. Informazio-unitateetan ikus-entzuleei hedatzen zaizkien irudietan zein Euskal Herriari buruzko ahozko aipamenetan hautematen da hori:

Ahozko aipamenetan:

- 2008an *Gaur Egun* albistegiko lurraldetasunaren ahozko aipamenen kasuen % 62 Euskal Herria kontzeptuari dagokio. 2010ean, aldiz, % 8 baino ez.
- 2008an Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi aipamenen % 18 baizik ez dira. 2010 urtean, ostera, % 86.
- Aztertutako 2010eko albistegiko informazio-unitateetan Hego Euskal Herria edo Hegoaldea, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa muga administratiboak gaindituz batu egiten dituen kontzeptua desagertu egiten da.

5. grafikoa. Lurraldetasuna albistegietako ahozko aipamenetan (2008 eta 2010)




Iturria: egileak landutakoa.

Infografiatan:

- 2008. urteko *Gaur Egun* albistegietan euskal erreferente geografikoa duten infografiak % 72an Euskal Herria osorik agertzen da, muga administratiborik gabe. % 14an Hego Euskal Herria azaltzen da, muga administratiborik gabe eta % 14an Hego Euskal Herria muga administratiboekin.
- 2010ean *Gaur Egun* albistegietan euskal erreferente geografikoa duten infografiak % 100ean Hego Euskal Herria muga administratiboekin ageri da. Aztertutako informazio-unitateetan zazpi probintziak inoiz ez dira elkarrekin ageri.

6. grafikoa. Euskal Herriaren irudikapena albistegietako infografiatan (2008 eta 2010)



Iturria: egileak landutakoa.

5. Oraingo egoera

Aldaketak izan dira EITBn lan honetan ikertutako garaietatik hona. 2012ko urriko hauteskundeen ondorioz osatutako EITBren egungo administrazio-kontseiluak 20 kide ditu guztira: EAJk aukeratutako sei ordezkari; Ezker Abertzaleren lau, PSE-EEren hiru eta PPren bi. Horiekin gizarte-eragileen lau ordezkari ditugu: sindikatuak (LAB), Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza eta kontsumitzaileen elkarteak. Azkenik, zuzendari nagusia dago.

Patxi Lopezek Eusko Jaurlaritzako lehendakaritza utzi eta Iñigo Urkulluk kargua hartu eta gero, zenbait aldaketa izan dira EITBko albistegietako nazio-identitatearen erreferentzietan. Eguraldi-mapa izan da horietan nabarmenena. Lopezen garaiko maparen izaera guztiz espainiar autonomikoa desagertu egin da, baina ez gara itzuli Ibarretxeren agintaldian Euskal Herria ikuspegi abertzale argi batetik agertzen zuen maparen eredura. Konponbidea erdibidea izan da. Jokaera edo iritzi abertzaleak bil ditzaketen albisteek ere leku nabarmenagoa hartu dute orain —euskal presoei buruzko albisteak, adibidez—.

Bibliografia

- Basterretxea, J. I. (2000): "Lurraldetasuna: Euskal Herriaren forma-aniztasun mediatikoa", in Nor ikerketa taldea, *Hedabideak eta Euskal Herria*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 155-197.
- Billig, M. (1995): *Banal Nationalism*, SAGE Publications Ltd., Londres.
- 'Euskal-Irrati Telebista' Herri Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 571982 Legea: [2013-8-22] <<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1982/06/8200684a.pdf>>.
- Etxezarreta, R.; Gurrutxaga, X. eta Iturriotz, A. (2010): "Lopez lehendakariaren Gobernu eztabaidan" mahai-ingurua, *Larrun* aldizkaria, Lasarte-Oria.
- Maxwell, R. (1995): *The Spectacle of Democracy. Spanish Television, Nationalism and Political Transition*, University of Minnesota Press, Minneapolis.
- Mollá, T. (2002): *Llengües globals, llengües locals*, Edicions Bromera, Valentzia.
- Costa, P.-O. (1986): *La crisis de la televisión pública*, Paidós Comunicación, Bartzelona.
- Torrealdai, J. M. (1993): "ETB eta euskara. Hamar urteren bueltan", *Jakin*, **75**, Donostia.
- Zabaleta, I. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

